

UDAL ERAKETAREN AKTA

ZINEGOTZI HAUTATUAK

Talde politikoa: EUSKAL HERRIA BILDU

Pedro Maria Estanga Lasa jna.
Saioa Tolosa Zubelzu and.
Amaia Urkola Arozena, and.
Aitzol Esnaola Zubeldia, jna.
Esther Iztueta Zelaia, and.
Jokin Tolosa Zabala jna.

Talde politikoa: EUZKO ALDERDI JELTZALEA –PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ/PNV).

Rafael Uribarren Axpe jna.
Agurtzane Nuñez Yarza, and.
Aitzol Arocena Zufiria, jna.
Jaime Peon Ormazabal jna.
Nuria Carbonell Mirnada and.

Idazkaria: Itziar Azurza Sorrondegui And.

Egun eta ordua: 2019ko ekainaren 15an, goizeko 10etan.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2019ko ekainaren 15ean goizeko hamarretan lehen deialdian, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. Artikuluan xedatutakoa betez, eta Udala eratzeko bilkura egiteko, Zinegotzi hautatuak bildu dira, horiek aurrez beren kredentzialak aurkeztu dituzte, bere nortasuna egiaztatuz eta bateraezintasun arrazoiak, jardueren eta ondare ondasunen aitortpenen aurkezpena bidezkotuz, Udal Batzarraren partaideen Interesen Erregistroan jasotzeko.

Adineko Mahaia Rafael Uribarren Axpe Jnak eta Amaia Urlola Arozena andak. osatu dute, adin gehiena eta gutxiena duten Zinegotzi hautatuak izateagatik, hurrenez hurren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik jasotako ziurtagiriek diotenaren arabera. Lehendakari gisa Rafael Uribarren Axpe jauna aritu da adin gehiena duena izateagatik, eta Idazkari lanetan, Udaleko Idazkaria den Itziar Azurza Sorrondegui And.

Maiatzaren 31ean izandako hauteskudeko emaitzak, Tolosako Hauteskunde Batzordeak bidali ditu eta Mahaiko Lehendakariak emaitza hauek zeintzuk izan diren jakinarazten du:

*Hautesle kopurua	1.534
*Boto emaileak	1.088
*Botu emaileak hautagaiei	1.048
*Baliiodun botuak	1.070
* Baliogabeko botuak	18
* Botu zuriak	22

HAUTAGAI BAKOITZAK LORTURIKO BOTU KOPURUA:

- EUSKAL HERRIA BILDU	585 botu	6 hautetsi
- EUSKO ALDERDI JELTZAILEA- PARTIDO NACIONLISTA VASCO	423 botu	5 hautetsi
- PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI- EUSKADI EZKERRA (PSOE)	40 botu	0 hautetsi

Zinegotzi hautatuak bertan direla egiaztatu ondoren, Lehendakariak hitza hartu eta mahaiak erabakitakoaren arabera boto gehien dituen kandidaturatik boto gutxien ditueneko ordena jarraituz egin behar dela jabetza hartzea adierazi du. Beraz, lehenengo deitu zaie:

- EUSKAL HERRIA BILDuko Zinegotzi hautetsiak:

ESTANGA LASA Jnak. hartu du hitza eta adierazi Saioa TOLOSA ZUBELZU, Amaia URKOLA AROZENA, Aitzol ESNAOLA ZUBELDIA, Esther IZTUETA ZELAIA, Jokin TOLOSA ZABALA eta bere izenean, egin behar hauek Legeak agindu eta horrela behartua, karguaren jabetza zin egiten dutela.

- EAJ/PNV Zinegotzi hautetsiak:

URIBARREN AXPE Jnak. hartu du hitza eta adierazi Agurtzane NUÑEZ YARZA, Aitzol AROCENA ZUFIRIA, Jaime PEON ORMAZABAL, Nuria CARBONELL MIRANDA eta bere izenean, egin behar hauek Legeak ontzat hartuko dutela horrela behartuta.

Taldearen parte hartzea amaitu ondoren, mahaiak KORPORAZIOA FORMALKI ERATUTZAT JOTZEN DU.

Ondoren, alkatea hautatzeari ekin zaio eta, horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. atalean ezarrita dagoen arautegiarekin adostasunean, alkate izateko ondoko zinegotzi hauek izendatu dira hautagai:

HAUTAGAIAREN IZENA / TALDE POLITIKOA

Pedro Maria ESTANGA LASA. EUSKAL HERRIA BILDU
Rafael URIBARREN AXPE EAJ/PNV.

Presidenteak proposatuta eta hautetsien onespenearekin, eskua jasota egin dute botazioa.

Bertaratutako zinegotziek bozketa egin dute eta hau da lortutako emaitza:

HAUTAGAIAREN IZENA/ EMAN ETA LORTURIKO BOTUAK

Pedro M^a ESTANGA LASA 6
Rafael URIBARREN AXPE..... 5

Bozketaren emaitza ikusita, **PEDRO M^a ESTANGA LASA**, EUSKAL HERRIA Bildu talde politikoko hautagai zinegotzia, **UDAL HONETAKO ALKATE IZENDATU DA**, Lehendakariak mahaiburuan esertzeko eta karguaz jabetzeko adierazi dio.

Pedro M^a ESTANGA LASA zinegotzi hautatuak Anoetako Udaleko Alkate kargua onartzen du eta Legearen arabera eta horrela behartua, aginaldian emaniko ardura beteko duela zin egiten du; karguaz jabetu da Udalbatza osoaren aurrean, indarrean dauden xedapenek ematen dioten eskumen, eskubide eta betebeharrekin.

Azkenik, alkateak hartu du hitza, besteak beste, aretoan dauden herritarrei bereziki eskertzeko bertara azaldu izana; halaber, kargua uzten duten zinegotziei egindako lana eskertzen die, eta zinegotzi hautetsiak animatzen ditu elkarlanean aritzera. Bilera amaitutzat ematen da 10:15 minutu direnean, bertan esandako guztia jasotzeko akta hau egin da eta nik, Idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.